

## **GERRARIK EZ, OKUPAZIORIK ERE EZ! Konponbide bakarra Bidezko bakea da.**

Irak inbaditu zutenetik bost urte bete direnean, Gizarte Mugimendu, Sindikatu eta Gobernu Kanpoko Erakunde desberdinek bat egin dugu, Estatu Batuetako eta Europako Gobernuak, eta haien aliatuek, Irakeko herriaren kontra eramaten ari diren sarraskia eta espolioaren aurrean, berriro ere gure kontrako jarrera gizarteratzeko.

- Gerra ez delako inoiz gatazken konponbidea izan, planetaren dominaziorako boteretsuen baliabidea baizik.
- Gerraren biktimak, helburu militartzat hartzen diren herritarrak direlako, batez ere emakumeak eta haurrak: 1.000.000 hildako, ehun milaka bortxatu, zauritu eta desplazatu eta herriaren erabateko suntsiketa.
- Militarizazioak emakume eta haurrenganako biolentzia sexistaren areagotzea eragiten duelako, haugariko askok derrigortutako prostituzioa jasan behar dutelarik.
- Gerra herriko ondasunak ateratzeko bidea delako.
- Propaganda ofizialak zioenaren kontra, gerra ez delako bakerako ezta demokraziarako bidea izan Ekialde Ertainean; honen ordez okupaziorako zurigarria bilakatu da.

**Edozein lurraldetan dauden atzerriko tropen okupazioaren amaiera exijitzen dugu, bereziki Palestinaren okupazio israeldarra, eta arma nuklearren eta erabateko suntsiketa armen deuseztapena eskatzen dugu.**

Ez ditugu ahaztu nahi beste gatazka batzuk: **Europako Txetxenia edo Afrikako Somalia, Zimbabwe, Afrika Erdiko Errepublika, Kongoko Errepublika Demokratikoa, Niger eta Asiako Kurdistán, Sri Lanka y Myanmar**; herrialde hauekako populazioek etengabeko gerrak eta bestelako esplotazio edo zapalketa erak jasaten dituzte, zeinetara bultzatuak izan dira gutxi batzuk etekin material bat (lurra, petrolio edota lan esku merkea, kasu) bilatuz, eta haien ondorioz, euren populazioen arteko errekurtsio ezberdintasuna areagotzen da.

Gerraren aitzakiaz gastu militarren hazkunde kezkarria ematen ari da, pobrezia, langabezia eta etxebizitza arazo larriei aurre egiteko aurrekontu partiden kalterako, egoera honen onuradun bakarrak armen ekoizpen eta esportazioaz arduratzen diren enpresak izanik. Ez dute inolako justifikaziorik gobernuak gerrarako zuzentzen dituzten dirutza ikaragarriek, 841 milioi pertsona gogosearen menpe, 1000 milioi etxebizitza egokirik gabe eta 250 milioi haur eskolatik kanpo daudenean.

Eskubide eta Askatasunen murrizketaren aurrean; besteak beste intimitate-eskubidearen bortxaketa, espioitza, disidentzia eta gizarte mugimenduen kriminalizazioa, xenofobiaren areagotzea eta etorkinen irainketa, honako hau **exijitzen** dugu:

- **Giza Eskubide eta askatasun zibilen errespetua, tortura, bahiketa, eta legez kanpoko atxiloketa eta espetxeraketa sekretuen amaiera.**
- **Gatazken konponbide politiko ez armatuaren aldeko negoziazioak eman daitezela; prozesu honetan giza erakunde eta emakume taldeen guztizko parte hartzea ezinbestekoa izanik.**

Martxoaren 20an Iraken kontrako gerraren bosgarren urteurrena beteko da. Egun honetan mundu mailako gizarte mugimenduek, basakeria hau eta gizarte ezberdintasunen biziagotzean, militarizazioan eta gerran oinarritutako nazioarteko eredu hau ikusirik, ASKI dela esateko bat egin dugu. Gizarte justizian, emakume eta gizonen arteko berdintasunean, herriek bere etorkizuna erabakitzeke duten eskubidean eta elkartasunean oinarritutako eredu berri baten alde lan egiteko konpromezua hartzen dugu.

**MANIFESTAZIOA**  
**Martxoak 15 larunbata, Bilbon. 17,30tan Arriagan**